

Ainhua Juaniz, clowna

«Pantxika 'Fatxistorraren' ondoan jarriko litzateke eta txistorra beganoa aterako luke»

Ainhua Juaniz iruindarra zirku artista da, gomazko emakume indartsu eta dibertigarria, noiz edo noiz gorputza Pantxika Lamur fenomenoari uzten diona.



Reyes Ilintxeta

@ReyesIlintxeta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Nola iritsi zinen zirkuaren mundura?

Ni oso berandu hasi nintzen zirku ikas-ten. Lehen kirol pila egiten nuen: karatea, igeriketa, gimnastika artistikoa, taekwondoa, sokatira... eta Madrilerira iritsi nintzen dantza afrikarra, antzerkia eta clown teknikak ikasi nituen zirkuaz gainera.

Madrilerira propio joan zinen zirku ikas-tera?

Duela hogeitatu urte Iruñetik ateratzea erabaki nuen. Lehenbizi Italiara eta ondoren Holandara joan nintzen. Italian sagarrak biltzen aritu nintzen lanean eta Holandan logistika enpresa batean, Nippon Expressen, bidali beharreko paketei etiketak jartzen. Ez dakizu zein gustura aritu nintzen lan fisiko horiek egiten. Madrilerira jendea ezagutu eta haiekin Madrilerira joan nintzen egun batzue-arako. Orduan Iruñera itzuli nintzen, baina aste bat pasata lagun haie- tatekin zidan esanez nire izena eman zuela Alcorcóngo zirku eskolan, gustu-koa izango nuelakoan. Jolas parkera joa- tea bezalakoa izan zen. Oso merkea zen, gainera, eta merezi zuen. Bigarren ur- tean, zirkuaz gain, antzerki eskolara eta dantza afrikarrak ikastera joan nintzen. Puente Vallecasen bizi nintzen hasieran eta gero Navalquejigo herri okupatuan.

Zeren bila joan zinen Iruñetik?

Oso gustura nengoen, baina Euskal He- rritik alde egiteko beharra nuen, herri honek harrapatzen zaituelako, eta are gehiago pertsona aktiboa bazara. Ez nekien, eta oraindik ez dut ikasi, ezetz esaten. Militantzia kontu horrek har- rapatzen zaitu, mila gauzetan sartzen zara eta nik ateratzeko beharra sentitu nuen, arnasa hartu, egun batean itzuli ahal izateko. Orain gustura nago berriro hemen eta prest Euskal Herriaren alde eta euskararen alde lan egiteko behar denean.

Nola sortu zen Zirika Zirkus?

Boli [Luis Lainez] eta biok Madrilen eza- gutu genuen elkar eta bat-bateko mai- temina izan zen. Alcorcóngo Udal Zirku Eskolan aritzen ginen ikasten eta, aldi berean, antzerki zirku konpainia batean lanean ari ginen. Eskolan hasi bezain laster konpainiako zuzendariak galdetu zidan ea hanka-paloetan ibiltzen ote ne- kien eta segituan hasi nintzen haiekin. Handik gutxira obra bateko protagonis- ta nintzen. Magia izan zen, baina nire bizitza osoan hala gertatu izan zait beti.

Handik denbora batera Boliri propo- satu nion gure ikuskizuna sortzea. Ho- rrela sortu ziren Loretsu Traketsu eta Bolitxe Zalaparta pertsonaiak. Hasieran

Boliren pailazoak ez zuen hitz egiten. Boli Vallecaskoa da eta orduan orain- dik ez zekien euskaraz. Iruñean eskaini genuen gure emanaldia eta egun ho- rretan bertan beste hiru tokitara joa- tea proposatu ziguten. Oso harrera ona egin ziguten eta ikusi genuen hemen aukera asko izan genezakeela. Madrilen

Ainhua Juaniz Ezpeleta

1970, Iruñea

Berak eta Bolik (Luis Lainez Taboada) Zirika Zirkus taldea sortu zuten orain dela 15 urte. Dozena bat ikuskizun sortu dute. Zirku, akrobaziak, eskujokoak, antzerkia, eta batez ere, umorea dira haien osagarri nagusiak. Ainhua Juanizek sortutako clown lotsagabe eta maitagarria da Pantxika Lamur. Zirku eskolak ematen dituzte haur eta gaztetxoentzat Txantrea auzoan eta Etxarrin. Astearen behin Euskalerria Irratiaren uhinen bidez bere burutazioak eta irri karkaila kutsakorrek barreiatzen ditu. Ekainaren 24an *Ondorengoak* lana estreinatuko dute Iruñeko Gaiarre Antzokiaren kanpoaldean.





etxe okupatu batean bizi ginenez, arazorik ez zegoen dena uzteko eta hona etortzeko. Iritsi ginenean Topaguneko kideekin, Xole Erbiti orduan Hezkuntza Saileko Euskara ataleko arduradunarekin, eta Iñaki Azkona Iruñeko Udaleko euskara teknikariarekin hitz egitera joan nintzen eta haiek nire aingeruak izan ziren. Beti eskertuko diet eman zidaten laguntza.

Baliabide gutxirekin hasi zineten.

Eskola askotara joaten hasi ginen. Ezer ez genuenez gure *katxeta* nahiko txikia zen. Maleta banarekin etorri ginen. Besterik ez genuen. Lagun batek margotu zigun kartel handi moduko bat eszenatokian jartzeko, izebak musika-kate zahar bat utzi zidan eta lagunek eramate gintuzten haien autoetan tokietara. Sare handi bat sortu zen. Nire ahizpa, gure kuadrilla... guk dena konpartitu izan dugu beti. Asko eman dugu eta asko eman digute beti.

Handik gutxira gidatzeko baimena atera eta lagun batzuek furgoneta zahar bat oparitu ziguten. Horrela, poliki-poliki, joan gara hazten. Urte batzuk dira honetaz bizi garela eta lasai gabiltza. 1.100 euroko soldata jarri diogu gure buruari. Gurekin batera beste hainbat lagun aritzen dira lanean ikuskizunetan, Maribel Martinez, Txetxu Collado, Oier Bravo eta Sergio de Andrés, bereziki.

Zirika Zirkusen zer egiten duzue?

Familia osoarendako antzerki-zirku ikuskizunak hainbat teknika uztartuz: orekak, akrobaziak, akroporteak, clown-ak, musikaz lagundutako esku-jokoak, eta dantzak; umorez betetako lanak dira, guztiak maitasun handiz eginak.

» “Pantxikak, emakume heldua izanda, askatasun ikaragarria sentitzen du pentsatzen duena esateko. *Neskazahar forever da*, baina berak aukeratu duelako”

Zuen ikuskizunetan ikusgarriena akroporteak dira. Ariketa fisiko gogorra da?

Bai. Kirol munduan akrosport deitzen zaio. Orain estreinatu behar dugun ikuskizunean akroyoga egiten dugu gehienbat. Akroporteak dira, baina yogatik hartutako osagarri batzuk dituztenak: arnasketak, sentsazioak...

Zuen entrenamenduak nolakoak izaten dira?

Gimnasia joaten naiz eta heldu den urtean pilates eta yoga gehiago landu nahi ditut. Beste batzuek arte martzialak, ariketak oihalekin edo bestelakoak egiten dituzte. Bakoitzak berea. Helburua da indarra, malgutasuna, oreka eta konfiantza lortzea. Konfiantza haur eta gaztetxoekin egiten ditugun ikastaroetan bereziki lantzen dugu, agertokiak gain bizitzako arlo guztietan beharrezkoa delako.

Elikadura zaintzen duzue bereziki?

Hala egin behar da, ongi jatea eta atsedan hartzea ezinbestekoak baitira halako lan bat egiteko. Dena den beti ez da erraza izaten. Bolada lasaietan dena

orekatuago egoten da, baina zurrumbilo batean sartzen zarenean, gu ikasturte bukaera honetan gabiltzan bezala ibilita, bolo pila batekin, kurtso amaierako saioak egiten eta oraindik gure ikuskizun berria estreinatu gabe, dena zaila goa da. Ez dugu denborarik ezta erosketak egiteko ere. Nik badaramatzat bi egun jateke batean jaten. Baina ez da ohikoa. Normalean etxean eta modu orekatuan jaten dugu. Irañetan bizi gara eta Sakanako barazki ekologikoak kontsumitzen ditugu, adibidez.

Lan egin baino lehen normalean oso gutxi jaten dugu. Emanaldi fisikoki gogorra egin behar badugu arratsalde erdian, adibidez, nik ez dut bazkaltzen.

Eta nola hasi zineten haur eta gaztetxoek ikastaroak ematen?

Txantreakoa naiz eta etorri ginenean ikusi nuen oso garrantzitsua zela auzoko haurrei erakustea guk ikasitako guztia. Horrela hasi ginen duela 15 urte Auzotegin klaseak ematen eta han jarraitzen dugu. Gaztetxo batzuk hasieratik daude gurekin eta dagoeneko guk baino gehiago dakite. Auzoari zer bait ematen saiatzen ari gara. Orain Irañetan bizi gara eta Etxarrin ere ematen ditugu klaseak. Zirkua beste gauza asko lantzeko bitartekoa da: elkartasuna, elkar laguntza, talde lana, lehiakortasunik ez...

Eta clown ikastaroak ere bai?

Haurrekin ezin da clowna landu, haiek clownak direlako. Haiengandik asko ikasten dugu. Antzerkia, begiradak, sentsazioak, zirkuko teknikak... irakasten dizkiegu, eta batez ere, erronkak gainditzten. Teknikari baino gehiago talde lanari eta saiatzeari ematen diegu garrantzia. ‘Gaizki’ hitza ez dugu erabiltzen.



Ondorengoak da ikuskizun berriaren ize-na. Noren ondorengoak dira?

Miren eta Nekane dira protagonistak. Haien arbasoek duela 500 urte sortu zuten zirku saioa berreskuratu dute. Zuzeneko musika, klakea, akroporteak, akrobaziak eta umorea, batez ere umorea, izango ditugu hemen. Zirku klasikoan familiek urte askotarako egiten dituzte ikuskizunak eta gurasoengandik seme-alabengana pasatzen dira. Guk hori nabarmendu eta erakutsi nahi genuen gure hamabosgarren urteurreneko ikuskizunean.

Zirkuaz zer pentsatzen duzu, oro har?

Animaliak dituzten zirkuak ez ditut onartzen. Alabaina, badira zirku klasiko onak, *Ondorengoak*-en espiritua dutenak, hau da, ikuskizun klasikoak belau-naldiz belaualdi transmititzen direnak. Pailazo klasikoak asko gustatzen zaizkit. Haiengandik jaso dugu pila bat.

Zein da clowna eta pailazoaren arteko aldea?

Lagun batek esaten zuen clowna ikasketak dituen pailazoa dela. Clown esaten zaio antzerki teknika bat lantzen duen pertsonari, eta pailazoak zirku klasiko-ko pertsonaia barregarriak dira. Hala ere, clownak asko hartzen du pailazoe-tatik. Charles Chaplin litzateke clown bat, adibidez.

Clown guztiak desberdinak dira. Mai-tagarriak izateak eta dena alde positibotik hartzeak batzen ditu. Pantxika Lamur da nire clowna eta pertsonaia honetan bufoien ezaugarri asko nahastent ditut. Gauza asko esaten ditu, oso zuzen gehienetan, baina intentzio onez. Clown bakoitzak pertsonaia desberdinak egin ditzake. Pantxika ezin da berdi-

» “Pantxikak edozein gauza esaten du, burura etortzen zaiona, eta horregatik ematen dit beldurra, edozein gauza ezin delako esan”

na izan toki eta egoera guztietan. Haur txikiei ipuinak kontatzen dizkien Lara Larika ikuskizuneko ezin da izan institutuetara joaten den Pantxika bera edo helduekin aritzen den Pantxika makarra. Clowna da esentzia, baina horrekin jolasten duzu. Pantxikak saio oso desberdinak egiten ditu: sari banaketak, euskararen aldeko saioak, aurkezpenak... denetik. Pantxika da Zirika Zirkusek bidaltzen duen pertsonaia edozein gauza egitera.

Zu lotsatia zara, eta bera aldiz, lurrikara.

Eta batzuetan Pantxika nagusitu eta bere kabuz aritzen da. Ez dakit azaltzen eta erotuta nagoela pentsatuko duzue, baina egia da. Batzuetan izututa ohar-tzen naiz Pantxika bera bakarrik ari dela lanean. Oso sentsazio polita da eta jakin nahi nuke nola gertatzen den, baina ezin diozu alde egiten utzi. Ezin duzu Pantxika bakarrik utzi, oso makarra delako.

Nolakoa da Pantxika?

Freskotasun handia du eta lotsagabe hutsa da. Emakume heldua izanda, askatasun ikaragarria sentitzen du pentsatzen duena esateko. *Neskazahar forever* da, baina berak aukeratu duelako.

Ni baino askoz modernoagoa da, zalan-tzarik gabe, eta oso afektiboa. Jendea-rekin asko jolasten du. Ikuskizunean, adibidez, ikusle batzuk aukeratzen ditu akroporte pare bat egiteko. Azkena Unai Lako Agoizko alkatearen gainean egin zuen.

Nork bere pailazoa egin behar du. Niri, formakuntza garaian esan zidaten nire clowna ongintza dama bat zela, eta hala da neurri batean nire Pantxika. Horregatik agian eragiten du hainbesteko barregarria, ez duzulako irudikatzen itxura hori duen andre batek halako ateraldiak izatea. Kontraste ikaragarria da. Beste irakasle batek esan zidan nik sentsualitate handia nuela, eta hasieran gaizki hartu banuen ere, gero ikusi nuen egia dela eta hori ere baliatu dezakedala.

Pantxikak edozein gauza esaten du, burura etortzen zaiona, eta horregatik ematen dit beldurra, edozein gauza ezin delako esan. Batzuek diote komikook ez dugula mugarik izan behar, baina behar dugu.

Zein muga?

Bortxaketaz ezin da umorerik egin, adibidez, eta nik entzun dut emakume bat horren inguruko txiste bat egiten. Nire ustez, hori ezin da egin.

Zer egingen luke Pantxikak aurreko egunean Iruñean egin zen banderaren aldeko manifestazioan atera zen pertsonaia maskaraduna ikusita?

Fatxistorra ikustean erdi miresle bihurtuko litzateke, bere alde frikiarena atearaz. Ziur naiz Pantxika aldamenen jarriko zitzaiola eta agian berak ere txistorra aterako lukeela, baina beganoa. Bera ere super nafarra da, baina makrobiotikoa.



Azken hitza: Gure umorea

Ez dakit zer umore mota dugun gus-
tuko euskaldunok. Pepe Viyuelak are-
toak betetzen ditu hemen eta Yllana
taldeak ere bai. Guk emanaldi pila egi-
ten dugu. Telebistan arrakasta handia
dute Anjel Alkainek eta Aitziber Gar-
mendiak. Azken hori da zalantzarik
gabe, euskal aktoreen artean gehien
gustatzen zaidana. Egiten duen guz-
tia oso freskoa dela iruditzen zait.

Gure buruaz irri egitea gustatzen zaigu?

Gaur egun, gure gizarte eredu honetan,
jende gehienarentzat zuzena eta perfek-
tua izatea hain garrantzitsua izanik, zai-
la egiten zaigu gure buruaz barre egitea.
Baina nik uste dut ideia horiei, presio
horiei, garrantzia kendu behar zaiela.

Pallasos en rebeldía taldekoekin harre- mana duzue. Haiekin kanpora joateko gogorik bai?

Bai, jakina. Gatazka egoeran dauden to-
kietara joaten dira alaitasun pixka bat
eramateko asmoz. Kanpora joatea gus-
tatuko litzaiguke, noski, baina ez da

erraza aukera eta denbora harrapatzea.
Guk ez dugu diru-laguntzarik eskatzen,
uste dugulako erakundeek ongi kudea-
tu behar dutela dirua. Gure filosofia ez
eskatzea da eta sosik aurreratu gabe
bizi gara. Ezin dugu emanaldiak egiteko
aukerarik galdu. ■

berdindu!

Lesbiana, gay, trans, bisexual eta
intersexualen arretarako euskal Zerbitzua

Servicio vasco de atención a lesbianas,
gais, trans, bisexuales e intersexuales

Araba Zapateria, 39 - behea
01001 Vitoria-Gasteiz
945 257 077 berdindu.araba@aldarte.org

Bizkaia Berastegi, 5-5.a
dptos. 8 y 9º 48001 Bilbao
944 237 296 berdindu.bizkaia@aldarte.org

Gipuzkoa Kolon, 50
20002 Donostia-San Sebastián
943 451 722 berdindu.gipuzkoa@gehitu.org

Zerbitzu ibiltaria:
berdindu.ibiltaria@errespetuz.org 675 459 317
Benidorm 1 solairuartea, ezk-eskuina 48015 Bilbao

Berdindu Eskolak:
Uribitarte 22, 4A - 48001 Bilbao
berdindu.eskolak@guztiok.org
649 834 038 / 653 721 725

berdindu!



Zerbitzuaren balorazioa
Valoración del servicio
Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz

berdindu@euskadi.eus

Euskadi, auzolana

